

GG GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena

ARTEA
ETORKIZUNERAKO
INSPIRAZIO

Guggenheim Bilbao Museoak abian jarri du bere 25. urteurrenaren ospakizuna

- 2022. urte osoan zehar izango duen jardueraren bitartez ospatuko du Museoak bere urteurrena
- “Artea etorkizunerako inspirazio” kontzeptua da nagusi ospakizunean
- Museoaren Bildumak leku nabarmena du programazioan

2022ko urrian 25 urte beteko dira Guggenheim Bilbao Museoa inauguratu zenetik. Gertaera hura pizgarri handia izan zen hiriko eta inguruneko kultura-, ekonomia-, gizarte- eta arte-arloetan, eta denboran zehar mantendu diren arrakasta eta oihartzuna izan zuen nazioartean.

Igarotako urteen aldean oso bestelakoa den testuinguru batean, eta pandemia dela-eta egin behar izan den hausnarketaren ondoren, Museoak ilusioz eta baikortasun errealista batetik heltzen die etorkizuneko erronkei. Osasun krisiak berekin ekarritako ziurgabetasunak eta mugek akuilu gisa balio izan dute moldakortasunak, proaktibitateak eta teknologien erabilerak ematen dituzten aukera berriak aprobetxatzeko, era horretan artea hedatzen eta inspirazioa lortzen jarraitzeko, eta lurraldeko elementu traktoreetako bat izaten jarraitzeko. Duela mende laurden garaiko krisi ekonomiko larriaren testuinguruan gertatu zen bezala, Museoak argi ikusi du konfiantza ematea eta ingurunea suspertzen laguntzea direla bere xede behinenetako batzuk.

Alde horretatik, Museoak bere urteurrenean nagusi izango de lema aurkeztu du: “Artea etorkizunerako inspirazio”. Urte honetan zehar erabiliko duen bere logotipoaren edizio berezi bat ere aurkeztu du, non Guggenheim markaren G letra bereizgarriak engranaje gisa mugitzen diren 25 zenbakia osatzeko.

URTEURRENAREN ARDATZAK

Ospakizunaren urtean, hauek izango dira jardueraren ardatzak:

- **Ospakizuna.** Museoaren historiako 25 urteetan izandako mugarri kulturalak, artistikoak eta sozialak balioan jartzea ahalbidetuko duen programazioa.
- **Museoaren Bilduma ikusgai** Museo osoan zehar. Publikoak, bisita bakar batean, Museoak bere hastapenetatik eskuratutako obretako asko behatzeko aukera izango du.
- Erakundeei, Museoarekin lotura duten kolektiboak eta gizarteak, oro har, **esker ona** adieraztea.
- **Inklusibitatea**, interes-talde, adin eta jatorri guztiei zuzendutako jardueren eta proposamenen programazio erakargarri eta dinamiko batekin.
- **Batasuna, harrotasuna eta pertenezia**, Museoa Bilboren, Bizkaiaren eta Euskadiren ikono eta bertako herritarrak harro egoteko arrazoi izatera eramanez balio gisa.
- **Eraldaketa eta etorkizun-proiektzioa**, Museoak eremu anitzetan berekin ekarritako eraldaketari eta lurraldea etorkizunari begira ikusten den moduari buruzko hausnarketa-guneekin.

Ēĵ GUGGENHEIM BILBAO

Ardatz hauetan bildutakoa zenbait eremutan gauzatzen da; **artearen** eremuan, anbizio bereziko erakusketa-programa baten bidez eta tokiko komunitate artistikora hurbiltzeko erakusketa-proiektu baten bidez; **kulturaren** eremuan, zentzurik zabalenean, programazioa areagotuta eta kulturaren arloko beste eragile batzuekin duen harreman estua indartuta; baita ospakizunaren eremuan ere, herritarrei gure esker ona adierazteko eta haiekin partekatze eta ospatzeko prestatutako hainbat ekitaldiren bidez.

EDUKI ARTISTIKOAK

Erakusketak

Museoak erakusketa-programazio handi bat diseinatu du, kalitate handikoa eta erakargarria oso, era guztietako bisitariari zuzendua. Publikoak proposamen-sorta zabala izango du gozatzeko, besteak beste, otsail honetan 25. urteurrenaren ospakizuna abiaraziko duten erakusketak –*Fauvismotik surrealismora: Parisko Musée d'Art Moderneko maisulanak* eta Jean Dubuffet artistari eskainitako atzerabegirakoa–, udaberri eta uda sasoian erakusgai egongo den *Motion, Autos, Art, Architecture* ikusgarria, edo udazkenean, urtemuga iristean, Museoa bere Bildumako obraz goitik behera “jantzita” egingo den jendaurreko aurkezpena.

Jarraian, labur-labur biltzen dira urteko erakusketa guztiak.

Fauvismotik surrealismora: Parisko Musée d'Art Moderneko maisulanak

Otsailak 11–maiatzak 22, 2022

305, 306 eta 307. aretoak, hirugarren solairua

Komisarioak: Hélène Leroy eta Fabrice Hergot, Parisko Musée d'Art Moderne, eta Geanine Gutierrez-Guimarães, Guggenheim Bilbao Museoa

Babeslea: BBVA Fundazioa

Erakusketa honek Parisko Musée d'Art Moderneren bildumako funtsezko artisten 70 maisulanen hautaketa bat dakar, XX. mendearen lehenengo hamarkadetan Parisen loratu ziren abangoardiako mugimenduen ikuspegi panoramiko bat eskaintze aldera. Erakusketa kronologikoki antolatuta dago hiru ataletan. Hala, fauvismoa eta kubismoa ordezkatzeko dituzten piezekin hasten da, kontuan hartuta obra horien ausardiak eta askatasunak artea irauli eta paisaiaren, giza irudiaren eta natura hilaren ikusmolde tradizionala aldarazi zutela. Jarraian, munduko bazter guztietatik Parisera joandako sortzaileen belaunaldi baten obrak daude ikusgai; haiek osatu zuten “Parisko Eskola” izenekoa gerrarteko garaian. Eta, amaitzeko, surrealismoari lotutako egileen lana dago erakusgai.

Jean Dubuffet: ospakizun bizia

Otsailak 25–abuztuak 21, 2022

105. aretoa, lehen solairua

Komisarioa: David Max Horowitz, Assistant Curator, Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Babeslea: BBK

ĒĴ GUGGENHEIM BILBAO

Erakusketa honek Jean Dubuffeten ibilbidearen hamarkada erabakigarriak aztertzen ditu, 1940ko hamarkadan artegintzan hasi zenetik 1984an osatu zituen azkeneko sailetaraino. Erakusketa New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museumeko funts zabalek osatzen dute gehienbat, eta osagarri gisa Veneziako Peggy Guggenheim Collectioneko obren hautaketa bat gehitu zaie. Lan-sorta horrek agerian jarriko du Dubuffeten obrak, aldaketak-aldaketa, irmo jarraitu zuela sustraitua ikuspegi berriak eta pizgarriak publikoarekin partekatzeko egiten zuen ahaleginean.

Monira Al Qadiri: inguru sakratua

Martxoak 10–ekainak 12, 2022

Film & Video aretoa

Komisarioa: Manuel Cirauqui, Guggenheim Bilbao Museoa

Arabiako basamortuan giza jarduerak ia ukitu ez duen leku batean kokatutako ikerlanean, artistak Lurraren sorburuari, giza bizitzaren zentzuari eta unibertsoak gainerakoarekin duen konexioari buruz galdegiten dio bere buruari; era berean, gogora dakartza historia kolonialean duela gutxi jazotako zenbait gertaera, eta teknologia berriek gure gizartearen eboluzioa aurreikusteko duten gaitasuna arakutzen du.

Motion. Autos, Art, Architecture

Apirilak 8–irailak 18, 2022

Bigarren solairuko aretoak

Komisarioak: Norman Foster; Manuel Cirauqui eta Lekha Hilleman Waitoller, Guggenheim Bilbao Museoa

Babesleak: Iberdrola eta Volkswagen

Erakusketa bikain honek automobilaren garrantzia aztertzen du, joan den mendeko artearen historiarekin eta diseinuarekin lotuta. 38 automobil bilduko ditu, enblematikoak eta oso gutxitan ikusgai jarriak; eta horiekin batera beste 300 pieza, tartean artista gailenen pinturak eta eskulturak, argazkiak eta ikus-entzunezko dokumentuak, bozeto-koadernoak, baita azken mendeko arkitekto eta diseinatzaile itzaltsuenetako batzuen maketak ere. Instalazioa Norman Foster Foundationek sortua da Guggenheim Bilbao Museoarekin batera, eta bertan aurkeztuko diren obrak bezain dinamikoa izango da. Bestetik, erakusketak etorkizuneko mugikortasunaren gaiari helduko dio areto nagusietako batean; horretarako, munduko diseinu- eta ingeniarietza-eskola gailenetako hamaseiri egin zaie deialdia.

Serra/Seurat. Marrazkiak

Ekainak 9–irailak 6, 2022

305, 306 eta 307. aretoak, hirugarren solairua

Komisarioak: Lucía Agirre

Erakusketa honek marrazkiak Georges Seurat (1859–1891) artistaren obran izandako garrantzia erakusten du. Gainera, agerian uzten du jarraitzaile ugari erakarri zituela eta, gaur egun, oraindik ere pizten duela interesa arte-kritikarien eta artisten artean; horren adibide dugu Richard Serra (1938). Izan ere, bi sortzaileek beren

ġ GUGGENHEIM BILBAO

ibilbideen hasiera-hasieratik izan dute praktika artistiko horrekiko interesa, eta prozesua, pisua eta grabitatea bezalako gaiak lantzeko erabili izan dute. Seuratek ikasitako marrazki-teknikak erabiltzeko zuen modu berritzailea nabarmenduko du erakusketak, eta, bereziki, materialen ezaugarriak erabiltzeko zuen modua. Antzera egingo du Serrarekin. Azken horrentzat, berezko entitatea duen jarduera da marrazkia, baita “etengabeko ardura bat” ere, “albo-arazoak eta bere-bereak dituen arazoak” dituen.

The Otolith Group. O horizon

Ekainak 23–urriak 9, 2022

Film & Video aretoa

Komisarioa: Manuel Cirauqui, Guggenheim Bilbao Museoa

Obra honek Rabindranath Tagore poeta indiar handiaren pedagogia irudikorraren hainbat une eszenaratzen ditu. Tagorek, 1919an, Kala Bhavana arte-eskola esperimentalak sortu zuen Mendebaldeko Bengalak. The Otolith Groupen pelikulak, argazki sail batek eta eszenografia espezifikoko batek propio lagunduta, ibilbide bat trazatzen du eskolako bizitzako momentuetan, erritualetan eta lekuetan zehar, eta, era berean, klima-aldaketaren eta dagoeneko Antropozeno izenez ezagutzen den aroaren inguruko ikerketan sakontzen du.

Sekzioak/Intersekzioak. Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumak 25 urte

Irailak 8, 2022–otsailak 26, 2023

Museoko areto guztiak. Lehen solairuko inaugurazioa irailaren 8an, hirugarren solairuko irailaren 20an, eta bigarren solairuko urriaren 19an.

Komisarioak: Lekha Hileman Waitoller, Manuel Cirauqui, Geaninne Gutiérrez-Guimarães, Guggenheim Bilbao Museoa

Museoaren Bildumaren erakusketa handi honek bere osotasunean hartuko du erakusketa-gunea, eta gaika aurkeztuko ditu Museoaren funtsak, artearen hizkuntza anitzen arteko konexio berriak azalduta, eta arte modernoaren historiako mugari eta joera nagusiak –Bildumako obrek modu paradigmaticoan irudikatuak– agerian jarrita. Erakustaldian nabarmentzekoak izango dira, beste askoren artean, berriro jendaurrean ikusgai jarriko diren Bildumako formatu handiko zenbait obra, kokapen zehatzekoak direnak.

Basque Artist Program erakusketa-proiektua

uztailak 8–irailak 6, 2022

177 Aretoa

Bertoko komunitate artistikoarekiko lotura estutzeko duen helburuaren ildotik, Basque Artist Programan parte hartu duten artistak bilduko dituen ekimen bat antolatuko du Museoak. Programa hori Bilboko eta New Yorkeko Guggenheim Museoek antolatzen dute, Euskadiko artista berriei zuzenduta, New Yorken egonaldiak egin ditzaten. Erakusketa-proiektuak programak orain arte izan dituen bost edizioetako hamar artista egoiliarren obra-sorta bat bilduko du. Artista horiek Raquel Asensi, Nora Aurrekoetxea, Helena Goñi, Jon Gorospe, Gala Knörr, Maite Pinto, Karla Tobar, Alain Urrutia, Cristian Villavicencio eta Diego Vivanco dira,

ġ GUGGENHEIM BILBAO

eta askotariko baliabideak lantzen dituzte, nola diren pintura, eskultura, paper gaineko obra, argazkilaritza, bideoa, kokapen zehatzeko instalazioak edo performancea; aztergai izaten dituzten kontzeptuak, aldiz, memoria, identitatea, errepresentazioa, espiritualtasuna eta eremu sentsoriala dira, besteren artean.

EDUKI KULTURALAK

TopARTE ekitaldiak

Museoaren 25. urteurrenean bultzada berri bat emango zaio TopARTE ekimenari. Artearen eta kulturaren arloan diharduten hainbat erakunderekin lankidetzan garatzen den egitasmo horren helburua zera da, askotariko diziplinetan —musika, zinema, bideoa, dantza, performancea, antzerkia, edo gastronomia, besteak beste— gauzatzen diren proposamenen eta proiektuen aniztasuna eta aberastasuna publikoari ezagutzera ematea.

Pandemiaren ondoren azaleratutako egoera berri honetan, Museoaren 25. urteurreneko TopARTE edizio berriak indarrak batu nahi izan ditu sormenaren garrantzia eta kulturak eraldaketarako zein gozamenerako eskaintzen duen ahalmena transmititzeko. Ekimenaren baitan, jarduera eta ekitaldi kulturalen programa zabala hartuko du Museoak urte osoan zehar. Honakoak dira orain arte zehaztutako kolaborazioak: ACT Festival, BCAM - Basque Center for Applied Mathematics, Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Design Research Society (Bilbao Ekintza), Bilboko Anime Festibala, Gau Zuria, International Forum of Visual Practitioners, Kuraia, La Fundación, Loraldia, Musikene, Bilboko Koral Elkarte, Bilboko Elkarte Filarmonikoa, eta Zinegoak.

Musika-emanaldien programa

Musikak leku nabarmena izango du 25. urteurren honetan, eta bost emanaldi berezi nabarmentzen dira horretarako antolatutako musika-egitarauaren baitan.

***Hamar*, Gabriel Erkorekarena** (Apirilak 30 eta maiatzak 1, 2022)

Museoko aretoak

Bere 25. urteurrenean, Museoak *Hamar* obraren interpretazioa hartuko du: Gabriel Erkoreka euskal konpositore gailenak Museoak hamar urte bete zituenean sortutako lana. Musika-instalazio gisa pentsatuta dago, eraikinaren barneko espazio desberdinetan interpretatua izateko; hala, Frank Gehryren arkitekturaneko zenbait txoko arakatzeko, eta elkarrizketa luzatzen die Museoaren Bildumako obrei, beren presentzia nabarmentzen duen soinu-dimentsioa eskainiz. Esperientzia sentsoriala da, Museoa modu berezian bizitzeko aukera ematen duena.

ġ GUGGENHEIM BILBAO

Mundua museo bat da (Maiatzak 11 eta 12, 2022)

Museoko Atria

Museoaren 25. urteurrenerako berariaz sortutako proposamen aparta, musika, literatura, artea eta arkitektura uztartuko dituena. Kirmen Uribek ekimenerako propio sortutako kontakizun bat, Bilboko Koral Elkartearen eta Euskadi Brass metal-orkestraren musika eta arkitektura bateratzen dituen bidaia literario eta musikala da.

Kontakizunak Museoaren historian barrena eramango gaitu hainbat etapatan: erakundearen sorrera, bokazioa eta bokazio hori gauzatzea posible egiten duen gizartea. Museoaren kokalekua, Euskalduna ontzi-enpresa, industria, Paris, Errusia edo New York dira ibilbide horren mugarrietako batzuk. Musikari dagokionez, Bilboko Koral Elkarteak eta Euskadi Brassek abesbatzako ahotsak eta metal-instrumentuen soinuak uztartuko dituzte, Kirmen Uriberen hitzekin batera entzun daitezten Museoko Atrio bikainean.

Bi urteurren ospatzeko kontzertua

Ekainak 18, 2022

Guggenheim Bilbao Museoa

Museoaren 25. urteurrenarekin batera, Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS) bere mendeurrena ospatzen du aurten. Ospakizunerako arrazoi bikoitza aprobetxatuta, herritarrei zuzendutako kontzertu handi baten agertokia izango da Museoa. Modest Mussorgskyren *Erakusketa bateko koadroak* izango da programa osatuko duten piezetako bat. Konpositoreak Viktor Hartmann lagunaren omenez idatzi zuen obra hori, azken hori hil ostean haren artelanetako batzuk ikusgai jartzeko antolatu zuten erakusketarako. Konposizioak musikaren bidez eta oso modu deskriptiboan irudikatzen zuen bisitariak koadrotik koadrorara egin beharreko ibilbidea. Jatorriz pianorako konposatua bazen ere, Maurice Ravelek orkestrazio bikain batekin “koloreztatu” zuen. Klasiko handi horrekin batera, kontzertuan, kideko asko bezala historiak bidegabe tratatutako emakume konpositore baten obrari helduko zaio: Augusta Holmès frantsesaren *Andromeda*, publikoak gozatu ahal izango duen poema sinfoniko trinko eta boteretsua. Arteen adiskidetasuna eta elkarrizketa ospatzeko aukera bikaina.

Francisco Escuderoren Sinfonia 3. zk. (Sinfonia Mitikoa) (Urriak 1, 2022)

Interpreteak: Bilboko Koral Elkarteko haurren abesbatza, Ensemble Kuraia, Andoni Alemán (narratzailea)

Museoko Atria

Sinfonia 3. zk. (Sinfonia Mitikoa) Francisco Escudero konpositorearen azken sorkuntza-etapako obra handienetako bat da, zalantzarik gabe. Harridura sortzen du erabilitako soinu- eta ahots-baliabideengatik, baita musikaren eta literaturaren elementu heterogeneoak modu miresgarrian uztartzen dituelako ere; elementu horietako asko euskal folkloreak dira, abangoardiako musikarekin elkar hartuta datozenak. Obra euskal mitologian dago oinarrituta, Jose Migel Barandiaranek bildutako kontakizunetan, eta testua euskara hutsean da.

Joaquín Achúcarren errezitaldia (Azaroak 3, 2022)

Museoko Atria

Museoaren urteurrenaren baitan, eta Joaquín Achúcarro pianista handiaren 90. urtebetetzearen ospakizunarekin bat etorrira, maisu bilbotarrak errezitaldi bat eskainiko du Atrioan, 1997. urtean, Museoaren inaugurazio-ekitaldian eman zuten kontzertu ahaztezinari keinu eginez.

BESTE PROIEKTU BATZUK

The Missing Element (Urriak 16, 2022)

Museoko Atria

New Yorkeko Solomon Guggenheim Museoak garatutako Works & Process programan parte hartzen duten zenbait dantzarik rapa, beatboxa eta break dancea bezalako diziplinak Museoaren arkitektura bereziarekin uztartuko dituzte emanaldi bizigarri honetan. Ekitaldi garaikidea da zeharo, Museoko kolektiboek urteetan zehar erakutsi diguten leialtasuna eta babesa eskertzeko antolatua. Atrioan izango den emanaldi nagusiaren aurretik, aste horretan bertan, zenbait “pop-up” ekitaldi egongo dira Museoaren barnealdean zein kanpoaldean: harri eta zur utziko dituzte bisitariak.

Uraren ekologiak (Urriak 6–7, 2022)

Museoko Auditorioa

Guggenheim Bilbao Museoak nazioarteko sinposio bat hartuko du bere baitan, “Uraren ekologiak. Artearen, zientziaren eta teknologiaren arteko lankidetzaren esparru bat” gaitzat hartuta. Diziplina arteko ekitaldi horren helburua artisten, zientzialarien eta teknologoaren arteko elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzea izango da klima-aldaketaren eta hari lotutako erronken testuinguru globalean, baita agerian jartzea ere urak gure planetaren etorkizunerako duen berebiziko garrantzia.

Museoak etorkizun jasangarrien formulazioarekin eta sustapenarekin hartua duen konpromisoa azpimarratzeko xedez, egungo ahots garrantzitsuenetako batzuk bilduko ditu Europako Batzordearen STARTS4Water ekimenarekin eta hura osatzen duten erakundearen partzuergoarekin lankidetzan antolatutako ekitaldiak. Honakoak dira, besteak beste, partzuergoaren kideak: Cittadellarte – Fondazione Pistoletto (Italia), Thyssen-Bornemisza Art Contemporary – TB21 (Espainia/Austria), V2_Lab for the Unstable Media (Herbehereak), BOZAR eta Gluon (Belgika). Ekitaldian nazioarteko ikerlariarekin batera arituko dira euskal adituak ere, lurralde hau hausnarketarako funtsezko eszenarioa baita ur-inguruneei —itsasoa nahiz ibaia— lotutako ekonomiekin duen lotura historiko bereziagatik.

OSPAKIZUNA

Museoaren 25. urteurrenaren hirugarren jarduera-ardatza herritarrekin ospatzeko pnetsatutako ekitaldi handiek osatuko dute, Museoak haiengandik jasotako babesak eskertzeko antolatutak.

Hona hemen haietako batzuei buruzko zenbait zertzelada:

Deabru beltzak: *Symfeuny* (Ekainak 24, 2022)

Museoko zabaldegia

Ekitaldi ikusgarri honetan, Deabru Beltzak kale-antzerki taldeak publikoaren zerbitzura jarriko ditu bere sormen, originaltasun eta energia guztia. Perkusio-soinuek eta suak auspotuko dute, baita hautemateko eta sentitzeko premiak ere, publikoarekiko hartu-emanak sustatzea helburu duen ikuskizun harrigarria.

Reflections II (Urriak 11–13, 2022)

Museoaren kanpoaldea

Museoaren 20. urteurrenean 300.000 pertsonak gozatu zuten *Reflections* deitutako ikuskizun txundigarriak. Musika, argia eta soinua osagaitzat izan zituen ikuskizun horren bidez, Frank Gehryk diseinatutako eraikinaren titaniozko fatxada bere historia ezagutzera emateko mihise bihurtu zen. Bost urte geroago, Guggenheim Bilbao Museoak *Reflections* haren bertsio berri eta hunkargarri bat eskainiko du: animazio eta proiektzio berriak, musika-obertura berria eta bertoko sortzaileekiko lankidetzak Museoaren historia gaur egunera hurbildu eta berriro ere une magikoak biziarazteko.

Lurraltera irekitzen (Urriak 19-azaroak 30, 2022)

Guggenheim Bilbao Museoa

Babeslea: BBK

Urriaren eta azaroaren zehar "Lurraltera irekitzen" kanpaina egingo da 25. urteurrena ospatzeko, BBK babesle duen ekimen horren bitartez, Euskadiko herritar guztiak bisitatu ahal izango dute Museoa dohainik. Gizarteari Museoarekiko atxikimenduagatik eskerrak emateko modu bat izango da, atxikimendu hori ezinbestekoa izan baita urte hauetan guztietan zehar erakunde honek lortu duen arrakastan.

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta komunikazio Arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

ġ GUGGENHEIM BILBAO